



Kontingentzia Plana, COVID-19 koronabirusa dela-eta

COVID-19 koronabirusaren eraginez nazio-mailan sorturiko egoera ikusirik, eta kontuan izanik Nafarroako Foru Komunitatean ere zabaltzen ari dela, beharrezkoa da legebiltzarrean gai honi buruzko kontingentzia plan bat izatea.

Horrenbestez, Mahaiak, Parlamentuko Erregelamenduaren 37.1. artikuluan aitortuta dauzkan eginkizunak betez, ondoko Kontingentzia Plana onetsi du 2020ko martxoaren XXan eginiko bilkuran:

1.- Indarraldia.

Kontingentzia Plan honetan jasotako neurriak, bai eta COVID-19 koronabirusaren eraginez sorturiko egoerak aurrera egin ahala aztertzen eta proposatzen direnak ere, aldi baterako izanen dira, eta osasun publikoko kontingentzia honen iraunaldira mugatuko dira.

Horrenbestez, ez dute denboran haragoko eraginik izanen eta, halaber, ez dira eskubide eskuratutzat joko, sor daitezkeen egoerei dagokienez.

2.- Koordinazio-taldea.

Koordinazio-talde bat eratu da, kasua bada aplikatu beharrekoak diren neurriak monitorizatu, proposatu edo adosteko, osasun agintariek emandako jarraibideen arabera.

Koordinazio-taldea honako hauek osatuko dute:

- Parlamentuko lehendakariak
- Parlamentuko lehenengo lehendakariordeak
- Legelari nagusiak
- Kabineteburuak
- Zerbitzu Orokorretako buruak
- Segurtasun eta Osasun Batzordeak

Parlamentuko Mahaiari dagokio onestea kontingentzia plan honi eta osasun arloko agintariek denboran zehar eginiko gomendioei jarraikiz hartu eta aplikatu beharreko suertatzen diren neurriak.

Dena den, urgentzia-arrazoia tarteko direnean, Parlamentuko lehendakariak zilegi izanen du beharrezkoak diren ezohiko neurri osagarriak hartzea, eta ondoren horien berri emanen dio Parlamentuko Mahaiari.

Koordinazio-taldearen bilerak presentzialak nahiz telematikoak izan ahalko dira, egoeraren arabera.

3.- Higiene- eta prebentzio-neurriak Parlamentuaren egoitzan

Gai honetan, osasun arloko agintariek une bakoitzean adierazitako neurriei jarraituko zaie.

Aurrekoa gorabehera, posible izan bezain laster (gaur egungo hornidurarik eza dela-eta), gel hidroalkoholikoak paratuko dira Parlamentuaren eraikinaren sarbide-atarian eta bainugeletan.

Garbiketa-enpresari eskatuko zaio desinfekzioa eta garbiketa indartu ditzan erabilera amankomuneko tokietan, ateen eskutokietan, eskudeletan eta igogailuetako botoietan, horretarako desinfektagai egokiak erabiliz.

Horrez gain, informazioa sendotuko da, erakunde ofizialen prebentzio-iragarkiak jasotzen dituzten kartelak paratuz sarrera-ateetan, igogailuetan eta bainugeletan.

Jendearentzako harreraguneetan (erregistroa) erabilera bakarreko zapien kutxak paratuko dira, behar izanez gero jendeak haiek erabil ditzan, bai eta zabor-poltsaz estalitako zakarrontziak ere, paperak haietan uzteko eta erraz kanporatu ahal izateko.

4.- COVID-19 koronabiruseko positiboen edo berrogeialdiaren kasuetarako neurriak.

Legebiltzarreko langileek positibo emanen balute edo medikuaren aginduz berrogeialdian egon beharko balute, horren berri berehala emanen litzazieke zerbitzu orokorre (948 209 209), jakin dezaten eta, kasua bada, osasun arloko agintariek gomendatzen dituzten neurriak har daitezzen.

Edonola ere, Parlamentuko langileak koronabirusa dela-eta zer egoeratan dauden ebaluatzearen ardura osasun zerbitzu publikoena izanen da, eta haiek erabakiko dute langile bati aldi baterako ezintasunagatiko baja emanen ote zaion.

Egoera berean dauden foru parlamentariak berehala emanen diote horren berri lehendakariari, posta elektronikoko bidez (presidencia@parlamentodenavarra.es), jakin dezan eta, kasua bada, osasun agintariek gomendatzen dituzten neurriak har daitezzen.

5.- Parlamentuaren egoitzako jardueretan eragiten duten prebentzio-neurriak.

2020ko martxoaren 16tik aurrera, astelehenarekin, Parlamentuaren eraikineko jardueri buruzko neurri hauek hartzen dira:

1.- Aldi baterako bertan behera uzten dira batzordeen lan-bilkurak, Parlamentuaren egoitzarako bisita gidatuak, eskola-ikasleen osoko bilkura eta antzekoak, bai eta Parlamentuaren barrenean egitekoak diren ekitaldi publikoak, hitzaldiak, erakusketak eta abar, enpresek edo kanpo-kontratadunek Parlamntura egitekoak diren bisitak barne.

2.- Aldi baterako bertan behera uzten dira Parlamentuko langile eta kideek egoitza kanpo egin beharrekoak diren jarduerak, hala nola bidaia ofizialak, bisitak, prestakuntza-ikastaro presentzialak, mintegiak, kanpo-enpresekiko bilerak eta abar.

3.- Ahal den heinean ekidin beharrekoak dira partikularrek Parlamentura eginiko bisitak; bereziki, seme-alaba eta familiartekoenak.

4.- Parlamentura sartzeko baimenduta dauden bakarrak honakoak dira: foru parlamentariak, bertako langileak, jarduera parlamentarioetako beharrezkoak diren ikus-entzunezko zerbitzuak teknikariak, garbiketa-langileak eta Legebiltzarraren funtzionamendu normala bermatzeko ezinbestekoak diren mantentze-lanetako enpresak, bai eta talde parlamentarioetako langileak, hedabideak eta hornitzaileak ere, baldin eta ezinbestekoa bada haien presentzia.

Azken kasu horietan, ahalegina egingen da haien egonaldiaren iraupena ahalik eta laburrena izan dadin kasuko zerbitzua egiteko, eta aplikatzekoak diren osasun-arauak betetik betiere.

5.- Aldi baterako bertan behera uzten dira bai publiko gonbidatua osoko bilkuretara etortzeko aukera, bai eta talde parlamentarioen bulegoetara hertsiki haien kide eta langileen multzokoa ez den edozein pertsona eginiko bisitak ere.

Aurrekoa ulertzen da ezertan galarazi gabe Legebiltzarraren egoitzan antolatzen den jarduera parlamentarioa, barne harturik osoko bilkurak, batzordeak, Mahaiarenak eta Eledunen Batzarrarenak.

KORONABIRUSA

PREBENITZEKO GOMENDIOAK

1 SARRI GARBITU ESKUAK URAREKIN ETA XABOIAREKIN



Mukiak kendu
edo doministiku
edo eztul egin
ondoren



Gaixo dagoen
norbait artatu
aurretik eta
ondoren



Komunera
joan ondoren



Elikagaiak jan
edo manipulatu
aurretik



Animaliekin
kontaktua izan
ondoren




Esku zikinak
dituzun
guztietan

2 EZTUL EDO DOMINISTIKU EGITEAN AHOA ESTALI BESAURREAREKIN EDO MUKIZAPI BATEKIN



3 ERABILI ETA BOTATZEKO MUKIZAPIAK ERABILI, ETA, ONDOREN, ZAKARRONTZIRA BOTA



4 ARNAS SINTOMARIK BADUZU ETA ARRISKU-EREMU BATERA JOAN BAZARA EDO KORONABIRUSAK INFEKTATUTAKO PERTSONA BATEKIN KONTAKTUAN EGON BAZARA, ETXEAN GERATU ZAITEZ ETA DEITU

112

BESTE ZALANTZARIK BADUZU, JARRI HARREMANETAN OSASUN KONTSEILUAREN
ZERBITZUAREKIN TELEFONO ZENBAKI HONETAN

948 290 290





Parlamento de Navarra
Nafarroako Parlamentua

NEURRI OSAGARRIAK, KORONABIRUSA (COVID-19) DELA ETA

Parlamentuko lehendakariak neurri osagarri batzuk ezarri ditu, Mahaiak gaur onetsi duen kontingentzia planaren esparruan eraturako koordinazio taldeari entzun ondoren, eta Parlamentuko batzordeetako bilkura arruntetako eta lan bileretako agerraldiak bertan behera urgentziaz uzteari buruzko Lehendakartzaren Ebazpenarekin bat etorriz (2016ko 53. NPAO, apirilaren 18koa).

1. Parlamentuko batzordeen bilkurak bertan behera uztea.

Bertan behera uzten dira Parlamentuko batzordeen bilkura guztiak 2020ko martxoaren 13tik (ostirala) 18ra arte (asteazkena), kontuan izanik ezen, bilera tokien ezaugarriengatik, ez direla betetzen laneko arriskuen prebentzioari buruzko gomendioak, Osasuneko arduradunek emandakoak Parlamentuko langileentzat zein foru parlamentariarentzat.

2. Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren bilkura

Mahaiak eta Eledunen Batzarrak 2020ko martxoaren 16ko bilkura eginen dute, eta ondoren eledunek prentsaurrekoa emanen dute erabilera anitzeko aretoan. Prentsaurreko hori streaming-ean transmitituko da.

3. Ordutegi malguari eta lan modalitateei buruzko neurriak

Egungo lanaldi-araubidea gorabehera, baldin eta agintariek agindu orokorra ematen badute hezkuntza zentroak edo antzekoak ixteko, legebiltzarreko langileek lana eta bizitza pertsonala bateratu ahal izateko ordutegi-malgutasuna baliatu ahalko dute, haiekin bizi diren 16 urte arteko seme-alabak, mendekotasuna duten seme-alaba zaharragoak edo mendekotasuna duten adinekoak zaintzeko. Halaber, lan-txandak moldatu ahalko dira. Horretarako eskaera egokia aurkeztu beharko da, eta letradu nagusiaren baimena jaso. Letradu nagusia kasuan kasuko zerbitzuko arduradunarekin koordinaturik arituko da.

Aurrekoaren ondorioetarako, langileek noiznahi bete ahalko dute beren lanaldia 07:00etatik 20:00etara bitartean, astelehenetik ostiralera.

Telelana:

- Burutza bakoitzak, martxoaren 13ko (ostirala) 14:00ak baino lehen, zerbitzu orokorretako buruari zerrenda bat bidaliko dio. Bertan zehaztuko da nor diren ezinbesteko langileak, betetzen dituzten eginkizunei erreparatuta hala kalifikatzen ahal direnak. Hori dela eta, kontuan hartuko da baldintza hori beteko luketela, soil-soilik,

administrazio jarduera geldituko balitz ere beren funtsezko eginkizunetan jarraitu beharko luketen langileak.

- Gainera, burutza bakoitzak bere ardurapeko langileekin batera aztertuko du etxetik lan egiteko aukera, telelanaren araubidean, betiere lanpostua modalitate horretarako egokia denean, eta beharrezkoak diren baldintza teknikoak betetzen badira.
- Era berean, salbuespenezko neurriak eskatu eta baimendu ahalko dira, langileek halako neurrien beharra badute egoera pertsonal edo familia-egoera berezien ondorioz, behar bezala justifikatuta.
- Informatikako langileek neurri egokiak hartuko dituzte Nafarroako Parlamentuan telelana sistema abian jartzeko, eta bertan lehentasuna emanen zaie ezinbesteko langileei.
- Betiere letradu nagusiaren baimena eskatu eta jaso beharko da telelanean aritu ahal izateko, eta kasuan kasuko zerbitzuko arduradunari jakinarazi beharko zaio.

4. Parlamentuko aferen erregistro publikoa.

Parlamentariak eta taldeetako langileak (laguntzaileak) nahitaez erabili beharko dute erregistro telematikoa.

5. Garajera sartzea

Baimendutako langileak soilik sartu ahalko dira Nafarroako Parlamentuko garajera, eta lagunik gabe sartuko dira.

Iruñean, 2020ko martxoaren 12an.

LEHENDAKARIA



Unai Hualde Iglesias

Albisteak eta Gaurkotasuneko Gaiak

Parlamentuko Lehendakariak bere agenda osoa bertan behera utzi du datozen asteetarako, koronabirusaren krisiak eragindako egoera dela eta



Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren asteleheneko bilkura eta COVID-19 Kontingentzia Planaren esparruan eraturako koordinazio taldearen bilkurak mantenduko dira

Koronabirusaren krisiak eragindako egoeraren aurrean, Unai Hualde Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak bere agenda osoa bertan behera utzi du datozen asteetarako. Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren bilkura egin... [Más información](#)

Parlamentuak bertan behera utzi ditu ostiral honetako batzordeak, aretoen ezaugarriengatik, eta Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren asteleheneko bilkurara mugatu du jarduera



Legebiltzarra telelanaren ezarpen selektiboa aztertzen ari da administrazio-jarduera geldituko balitz ere; ordutegi malgua onartu du, eta erregistro telematikoa erabiltzeko agindu du

Nafarroako Parlamentuak jarduera parlamentarioa oraingoz bertan behera uzteko agindu du, Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren bilkura izan ezik; bilera hori astelehenean egingen da, hilak 16, goi... [Más información](#)

Nafarroako Parlamentuak kontingentzia plan bat taxutu du koronabirusa dela-eta



Astelehenetik aurrera parlamentu-jarduera murriztuko da, Osoko Bilkurak, Mahaiaren eta Eledunen Batzarra eta agerraldiak soilik mantenduz, eta egoitzarako sarbidea ere mugatuko da

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak kontingentzia plan bat onetsi du gaur aho batez, koronabirusa Foru Komunitatean zabaltzen ari dela ikusirik, koordinazio talde bat eratzeko. Talde horrek monitorizat... [Más información](#)

Parlamentuak eraikina itxi, gutxieneko zerbitzuak finkatu, telelana baimendu eta jarduera etenen du hilaren 23tik 29ra bitartean. Neurriak apirilaren 13ra arte luzatzeko aukera egonen da



Parlamentuaren jardueraren murrizketak irauten duen bitartean, aurreikusi da Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren bilkurak eta ezinbestekotzat jotzen diren beste organo batzuenak bideokonferentzia bidez egiteko aukera


Nafarroako Parlamentuak gaur, 17:30ean, eraikina eta zerbitzu guztiak itxiko ditu martxoaren 29ra arte. Neurria apirilaren 13ra arte luzatzeko aukera aurreikus... [Más información](#)

Txosten juridiko batek ziurtatu du mekanismo teknologiko nahikoak badauela bilkura urgenteak eta seguruak egiteko, erakundearen ohiko funtzionamendua aldatu gabe



Gomendatzen da 1/2020 FLD, Parlamentuak baliozkotu ondoren, Lege Proiektu gisa izapidetzea, hari erabateko segurtasun juridikoa emateko, 2020ko aurrekontuei eragiten baitie

Mahaiak eta Eledunen Batzarrak (Bideokonferentzia bitartez) jasotzat eman dute Urgentziazko arrazoiak direla medio, murrizketa-aldian ezinbestekoak diren parlamentu-eginkizunak betetzeari bu... [Más información](#)



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko martxoaren 17a

36. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Ohiz kanpoko euste-neurriak, Legebiltzarreko Mahaiak 2020ko martxoaren 12an COVID-19 koronabirusari aurre egiteko onetsi zuen kontingentzia planaren osagarriak (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Ohiz kanpoko euste-neurriak, Legebiltzarreko Mahaiak 2020ko martxoaren 12an COVID-19 koronabirusari aurre egiteko onetsi zuen kontingentzia planaren osagarriak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko martxoaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. COVID-19 koronabirusari aurre egiteko kontingentzia planaren osagarri gisa honako ohiz kanpoko euste-neurri hauek onestea:

Ohiz kanpoko euste-neurriak, Legebiltzarreko Mahaiak 2020ko martxoaren 12an COVID-19 koronabirusari aurre egiteko onetsi zuen kontingentzia planaren osagarriak

Ikusirik COVID-19 koronabirusak sorturiko egoera eta horren ondoriozko osasun-larrialdiko egoerari aurre egite aldera berriki alarma-egoera deklaratu dela, beharrezkotzat jotzen da ohiz kanpoko euste-neurriak hartzea, osatu egiten dutenak Legebiltzarreko Mahaiak COVID-19 koronabirusari aurre egiteko onetsiriko kontingentzia plana, bai eta Parlamentuko lehendakariak koordinazio-taldeari entzun ondoren onetsiriko neurri osagarriak ere, biak 2020ko martxoaren 12koak.

Hori dela-eta, ohiz kanpoko honako euste-neurri hauek hartu ditu Parlamentuko lehendakariak, kontingentzia planean ezarritakoaren babesean eraturiko koordinazio-taldeari 2020ko martxoaren 16ko bileran entzun ondoren:

1. Jarduera parlamentarioa murriztea eta neurriak luzatzea.

Jarduera parlamentarioa murriztu egiten da 2020ko martxoaren 23tik 29ra bitartean, biak barne, eta murriztapen hori luzatu ahalko da, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak horretarako erabakia hartu ondoren, 2020ko martxoaren 30etik apirilaren 13ra bitartean, biak barne. Horretarako, martxoaren 27an (ostirala) Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren bilkura bat egiten da, aipatu neurriak berrikusi eta berresteko.

Hala eta guztiz ere, epe horretan zilegi izanen da Mahaiak eta Eledunen Batzarrak beharrezko-

tzat jotzen diren bilerak egin ditzaten; bilera horiek, ahal dela, bideokonferentziaz eginen dira.

Lehendakariak, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak zilegi izanen dute aintzat hartzea beste organo parlamentario batzuen bilera zehatzetarako deialdia egitea, baldin eta ezinbesteko suertatzen badira urgentzia-arrazoiengatik; kasu horretan, segurtasuna bermatu eginen da bilera horietan, egokitzat jotzen diren bideak erabiliz.

2. Izapideak eta epeak etetea.

Etenda geratzen da gaur egun izapidetzen ari diren afera parlamentario guztien izapidetzea, horien epeak barne. Ondorio horietarako, dagokion epearen zenbaketa eten egiten da neurri horiek indarrean sartzen diren unean, eta amaitzen diren unean hasiko da berriro.

Administrazio-eppei dagokienez, etenda geratzen dira, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak hirugarren xedapen gehigarrian ezartzen duenaren arabera, (Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratzeko, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko).

3. Eraikinerako sarbidea mugatzea.

Arau orokor gisa, Nafarroako Parlamentuaren eraikina itxi egiten da, bai eta bertako zerbitzu guztiak ere, 2020ko martxoaren 16ko 17:30etik aurrera, 2020ko martxoaren 29ra arte (azken hori barne). Itxialdi hori luzatzen ahalko da, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak horretarako erabakia hartu ondoren, 2020ko martxoaren 30etik apirilaren 13ra bitarte, biak barne. Dena den, gutxieneko zerbitzuetan diharduten pertsonen presentzia fisikoa baimenduta dago, ezinbestekoak diren eta nahitaez presentzialki egin beharrekoak diren zereginak egin ditzaten.

Orobat baimenduta dago garbiketa-langileak eta mantentze-lanak egiten dituzten enpresetakoak sar daitezen, horien zereginak egitea ezinbes-

tekoa bada instalazioen funtzionamendu egokira-ko edo suertatzen diren larrialdiei erantzuteko.

Lehendakariak eta Mahai nahiz Eledunen Batzarreko kideek baimenduta izanen dute eraikinean sartzea, beharrezkoak izanik nahitaez presentzialki egin beharrezkoak diren eginkizunak betetzeko, horretarako ezinbestekoa den denboratartean.

Kasu guztietan, egonaldia mugatuta egonen da beharrezkoak diren eginkizunak betetzeko ezinbestekoa den denborara, eta egonaldia betiere egingen da segurtasun-bermearekin, kutsadura-arriskua ekiditeko beharrezkoak diren bitartekoak ezarrita.

Eraikinean fisikoki egotera behartzen duen beste edozein ezohiko inguruabarrek beharrezkoa izanen du lehendakariaren edo idazkari nagusiaren baimena.

Hori guztia ulertzen da ezertan galarazi gabe Foruzaingoak eraikina zaintzeko egiten duen lana.

4. Gutxieneko zerbitzuak ezartzea.

Gutxieneko zerbitzuak ezartzen dira, ezinbestekoak diren jarduera parlamentarioak edo administratiboak egiteko; besteak beste, honako hauek:

- Nafarroako Parlamentuaren erregistro telematikoz arduratzea
- Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren edo gainerako organo parlamentarioen deialdiak.
- Afera parlamentarioen izapidetzea eta kudeaketa parlamentarioa
- Parlamentuaren erabakiak exekutetzea
- Kontratazio-espeditenteak izapidetzea
- Nomina-kudeaketa eta ordainketen formalizazioa
- Erabaki parlamentarioak argitaratzea eta itzultzea
- Eraikinaren oinarrizko eta funtsezko mantentzea

8. Lan presentziala etetea.

Nafarroako Parlamentuko gainerako langileak lan presentzialetik salbuetsita daude, baina aurkituak izateko moduan egonen dira, behar izanez

gero urgazpena eman dezaten. Horretarako, kontaktu-telefono bat eman beharko diote Zerbitzu Orokorretako buruari, salbu eta Parlamentuan haietako bakoitzak duen posta elektronikoen bidez harremanetarako moduan daudenean. Haien egoera ezinbesteko eginbehar bat egitearen parekotzat joko da, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen Erregelamenduko 28. artikuluan xedatuari jarraikiz.

Kanpotiko zuzeneko sarbidea duten telefono finko guztiak haien gailu mugikorretara desbideratu beharko dira ahal bada, egoera honek dirauen bitartean egin litezkeen deiei erantzun ahal izateko; eta, beharrezkoa bada, gutxieneko zerbitzuetan diharduten langileei helarazi beharko zaizkie.

Era berean, langile horiek ahal dutenean erantzun beharko diete beren mezu elektronikoei; eta, beharrezkoa bada, gutxieneko zerbitzuetan diharduten langileei helarazi beharko dizkiete.

9. Erregistroa eta jendearentzako arreta.

Lan presentzialaren etenak dirauen bitartean, erregistro guztiak telematikoki egingen dira, Nafarroako Parlamentuaren Erregistro telematikoen edo erregistroa@nafarroakoparlamentua.eus posta elektronikoen bitartez.

Etenda geratzen dira jendeari arreta emateko zerbitzu presentzialak. Zerbitzu horiek telefono bidezko arretaren bidez (948 209 209) eta telematikoki emanen dira, honako posta elektronikoko helbideen bidez:

erregistroa@nafarroakoparlamentua.eus
protokoloa@nafarroakoparlamentua.eus

12. Indarra hartzea.

Neurri hauek indarra hartuko dute sinatzen diren unean.

2. Erabaki hau hurrengoei jakinaraztea: foru parlamentariari, Legebiltzarreko langileei, Foruzaingoari eta Nafarroako Gobernuari.

3. Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean honako neurri hauek argitaratuko dira: 1, 2, 3, 4, 8, 9 eta 12. zenbakiak dituztenak.

Iruñean, 2020ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

